

Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa. Horren bidez, Laudioko Udalari gomendatzen zaio Laudioko José Matia kaleko 16-18. zenbakiko espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.

Aurrekariak

1. Laudioko Pertsona Ezinduen Elkarteak (APEFE) salatu zuen udalerrian oinezkoentzako pasaguneetara heltzeko espaloietan egiten ari ziren beharrezko ez zituztela kota egokiak. Horixe gertatzen da José Matia kaleko 16-18. zenbakiko pasagunean.

Beharregune berriak eraikin berriak egin ondoren:

Lehen



Orain



Lehen



Orain



2. Kexa izapidetzea onartu ondoren, adierazitako gaiari buruzko informazio egokia eskatu zion Arartekoak Udalari, erreklamazioa behar bezala bideratzeko xedez.



Eskaera horri erantzunez, toki erakunde horrek erantzun zigun bidezko egiaztapen lanak egin zirela, *in situ*, salatutako gertakariak ziurtatze aldera. Txostenetan ere adierazi zenez, “...leku horretan aplikatu daitezkeen neurri zuzentzaileak hartuko dira, betiere, udalerrian era horretako lan gehiago egin behar direla eta, ondorioz, lehentasunen ordena ezarri behar dela kontuan hartuta.”

Horren inguruan ere adierazi ziguten INEMekin beste hitzarmen bat sinatuko zela, prestakuntza-ikastaroak emateko, traba arkitektonikoak ezabatu eta hiri altzariak ordezkatu eta konpontzearen inguruan; izan ere, emaitza onak lortu ziren eskaintako ikastaroen garapen praktiko gisa udalerrian egindako zenbait egokitzapen lanetan.

3. Jakinarazpena erakunde honetan jaso genuenetik denbora asko igaro denez, berriz ere Udalarari zuzendu gintzaizkion, aipatu hitzarmena sinatu ote zen edo, halakorik egonez gero, konponketa-lanak hasi edo egin ote ziren jakinaraz ziezagun.

Gure eskaerari erantzunez, 2006ko abenduaren 27an honakoa helarazi ziguten: “*INEMeko Enplegu eta Prestakuntzako Zuzendariordetza Probintzialak 2006ko abuztuaren lehen emandako ebazpenaren bidez, udal honi “traba arkitektonikoak ezabatze” programa burutzeko lanak eman zitzaizkion. Lan horiek 6 hilabeteko iraupena izango zuten eta, horiek gauzatzeko, ofizial igeltsero bat eta lau peoi erabiliko ziren. Programa hori 2006ko irailaren 26an hasi zen eta datorren martxoaren 24an amaituko da. Orain arte zure idazkian aipatutako urratsetako batzuk egin dira, baita Udaleko Zerbitzu Teknikoek antzemandako beste batzuk ere...*”

4. Aurreikusitako lanak egiteko Udalak adierazitako epea igarota, aipatu behar dugu, APEFE elkarteak duela gutxi bidalitako argazkiekin bat etorriz, egun oraindik ez zaiola konponbiderik eman salatu zen hirigintzako ilegaltasun egoerari.

Gogoetak

1. Hirigintzako oztopoak kentzearen arloan hizpide ditugun urbanizazio elementuari aplikatu beharreko arauak abenduaren 4ko 20/1997 Legea,



irisgarritasuna sustatzeari buruzkoa, eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, dira.

2. Legeak eredu berri baten alde egiten du, *“pertsonek ingurune sozial eta komunitarioan osoki eta libre garatzen direla bermatzea izanik helburua. Horretarako, gure Elkarteak pertsona guztiak ingurune fisikora eta komunikaziora iristen direla bermatu behar da, batez ere, mugaren bat duten pertsonak.”*
3. Ildo horretatik, 20/1997 Legeak, abenduaren 4koak, irisgarritasuna sustatzekoak, honakoa dio 2. artikuluan: *“Euskal Autonomi Elkartearen esparruan ezarriko da, nortasun fisikoa edo juridikoa duen edozein sujetu publiko zein pribatuk egiten dituen jardueretan, hirigintza, eraikuntza, garraio eta komunikazio arloetan.”*
4. Xedapen hori garatze aldera, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. eranskineko 1. artikulua hiri inguruneko irisgarritasun baldintza teknikoak arautzen ditu eta, bereziki, espazio publiko eta ekipamendu komunitarioetakoak. 3.1 artikulua araberan, honako hauek har daitezke urbanizazio elementu gisa: *“urbanizazio obretako edozein elementu; urbanizazio obrak honako hauek izango dira: zoladura, saneamendua eta estolderia, energia elektrikoa, gasa, telefonoa eta telematika banatzea, argiteria publikoa, lorategiak, baita hirigintza-plangintza garatzeko tresnen argibideak gauzatzen laguntzen duen oro ere.”*

Dekretuaren 3.5 artikuluari jarraiki, oinezkoentzako pasaguneak oinezkoek galtzada gurutzatu ahal izateko eremuak dira. Artikulu horrek honela arautzen du horien diseinua:

- “...2. Oinezkoen ibilbidean “zerrenda seinalizatzailea” jarrita adieraziko dira, metro bateko edo gehiagoko zabalerarekin, erabili beharreko lauza edo zoladuraren araberan eta oinezkoentzako pasagunearen ardatzarekiko neurtuta.*
3. *Pasagunea bertikalki (argi seinaleak), horizontalki (soinu bandak) eta koloreen bidez (banda zuri-gorriak) seinaleztatzea gomendatzen da, bereziki, pasagune arriskutsuetan eta/edo gaineko pasaguneetan.*



4. *Oinezkoen ibilbideen edo espaloien eta galtzadaren artean koska baldin badago, oinezkoentzako pasabideak jarriko dira, honako ezaugarri hauekin:
 - 1.- *Plano inklinatuak jarriko dira; horien luzetarako eta zeharkako malda ez da, hurrenez hurren, % 8 eta % 15 baino gehiagokoa izango. Espaloiarene zabalera, gutxienez, 1,50 m-koa izango da, pasabidearen zatia kontuan hartu gabe.*
 - 2.- *Pasabidearen zabalera, galtzada-kotan, gutxienez oinezkoentzako pasagunearena izango da.*
 - 3.- *Oinezkoentzako pasabide osoko zoladura, metro bat zabalagoa perimetro osoan, zerrenda seinalizatzailearen berdina izango da, IV. eranskinean, komunikazioaren irisgarritasunari buruzkoan, adierazitakoarekin bat etorritik.**
5. *Ahal den guztietan, oinezkoa zirkulazio erreira hurbilduko duten oinezkoentzako pasabideak egingo dira; pasabidea aparkaleku zonaren gainean egingo da, baina ibilgailuen zirkulazioari eragin gabe. Era honetako pasabideak bereziki egokiak dira kaleen elkarguneetan egiteko.*
6. *Espaloi estuetan, ezaugarri horiek dituen pasabidea egiteko espazio nahikorik ez badago, espaloia galtzadaren kotara (galtzada eta zintarria elkartzen diren kotara) beheratuko da, oinezkoentzako pasagunearen zabalera osoan, plano inklinatu bidez; batzuek, espaloiarekiko luzetara jarrikotakoek, % 8ko malda izango dute eta besteek, zeharka jarritakoek, % 1,5koa...*

Erantsitako argazkian ikus daitekeen bezala, aipatu dugun oinezkoentzako pasagunea ez da behar bezala egokitzen espaloiara eta, beraz, hori traba nabarmena da mugikortasun urria duten pertsonentzat.

5. Ondoz ondoko txostenen bidez, erakunde honek askotan adierazi du udalak funtsezkoak direla, hirigintza-antolakuntzaren arloko erakunde eskudun gisa, hiri ingurunean irisgarritasun arauak betetzeari dagokionez jarraipen eta kontrol lanak egiteko. Esku artean dugun kasuan, zalantzarik gabe, Udala bera da salatutako hirigintzako ilegaltasunaren erantzulea eta, beraz, berak hartu behar ditu, al bait arinen, irregulartasun hori ongitzeko eta, hala, aipatu arauetan jasotakoa betetzeko beharrezkoak diren neurriak.

Horren ildotik, Arartekoak uste du toki erakunde horrek onartu egin behar



duela irisgarritasun arauak, partikularrez gain, Administrazioa bera ere behartzen dutela horiek betetzera, legezkoetasun printzipioak bideratu behar baititu botere publikoen jardura guztiak. Hori dela eta, azpimarratu behar dugu ahalegina egin behar dela eta bidezko neurriak hartu behar direla Laudioko hiri inguruneak irisgarriak izan daitezen bermatzeko.

Horiek horrela, erakunde honen ustez, saihestezina da, arautegian jasotako aurreikuspenak bete ahal izateko, kasu honetan bezala, lehentasuna ematea beharrezko lanak egiteari APEFE Elkarteak antzeman eta egiaztatutako hirigintzako gabeziak zuzendu edo ongitu daitezen.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten da:

38/2007 GOMENDIOA, urriaren 16koa, Laudioko Udalarari egina

Laudioko José Matia kaleko 16-18. zenbakiko oinezkoentzako pasagunea egokitzeko bidezko lanak gauza daitezela, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. eranskineko 3.5. artikulua, hiri ingurune eta, bereziki, espazio publiko eta ekipamendu komunitarioetako irisgarritasun baldintza teknikoak arautzen dituenak, ezartzen duenarekin bat etorritik.